

**Deialdia, Sakanako Mankomunitaterako turismo INFORMATZAILE izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.**

**1. oinarria.- Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen helburua da turismo INFORMATZAILEA izateko lanpostu bat, lan araubidekoa, presako prozeduraz betetzea. Lanaldi osoa izanen du, eta hiru hilabetez arituko da. Kontratazioari hasiera emanen zaio 2018ko ekainaren 29an.

1.2. Izendatutako pertsonak hilabetezko probaldia pasatu beharko dute, kontratua sinatzen denetik aurrera kontatuta.

1.3. Honako hauek izango dira kontratatuaren eginkizunak:

Sakanako Garapen Agentziaren Turismo teknikariaren ardurapean, Turismo informazio gunearen kudeaketa. Besteak beste, honako hauek:

- Turisten harrera eta informazioa.
- Informazio eta datuen bilketa, eguneratze eta tratamendua.
- Bisiten gidaritza.
- Turismoari loturiko jardueretan Turismo arduradunari laguntza.
- Material turistikoaren bilketa eta kudeaketa.

1.4. Lanaldia % 100ekoa izango da, eta Sakanako Mankomunitateak ezarriko du, zerbitzuaren beharren arabera.

1.5. Kontzeptu guztiengatik egokituko den lansaria, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langileen hitzarmen kolektiboan C maila edo taldekoentzat ageri den huraxe izango da.

1.6. Seigarren oinarrian exijitutako puntuazioaren arabera gainditu duten izangai guztien artean zerrenda bat egingo da, Mankomunitateak kontratazioetarako erabil dezakeena.

**2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.**

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) **Langabezian** egotea deialdi hau onetsi aurretik eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan inskribaturik egotea, enplegu-eskatzaile gisa. Deialdian ezin dezakete parte hartu lana hobetzeko inskribaturik dauden pertsonak. Ez eta autonomo gisa alta emanda dauden pertsonak ere. Parte hartzeko ezinbestekoa da langabezian egotea.

Izangaiak aurreko paragrafoan deskribatutako egoeran egon beharko dira kontratazioa egiten den egunean. Kontratazioaren formalizazio egunean baldintza honen betetzea ziurtatuko da dagokion Enplegu Agentziaren bidez, eta horren ez-betetzea ziurtatuz gero, izangaia kontratazio zerrendatik kanpo geldituko da, eta 7. oinarrian aipatzen den zerrendan ondo-ondotik heldu diren izangaiekin beteko da lanpostua.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Lanbide Heziketako Bigarren Mailako edo Batxilergoko titulua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

d) EGA titulua edo haren baliokidea izatea. Eskatutako euskara maila eduki ezean, euskara proba egin beharko da. Proba hori Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egingo du, ekainaren 15ean, 9:30ean, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan (Uriz kalea, 32. Lakuntza).

e) Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

g) B motako gidabaimena eta ibilgailu propioa izatea.

h) Ingeles titulua (B1) edo haren baliokidea izatea. Ez da mailaketa probarik egingo betebeharrak hori egiaztatzeko.

### **3. oinarria.- Eskabideak.**

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Sakanako Mankomunitateko bulegoetan aurkeztu beharko dira **2018ko ekainaren 14ko 14:30ak arte.**

3.2. Eskabideekin batera, izangaiek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) NANaren fotokopia konpultsatua edo identifikazio agiri baliokidea, bai eta B motako gidabaimenarena ere.

b) Langabezian dagoela eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan inskribaturik dagoela egiaztatzen duten agiriak.

b) Lehiaketaldian baliatu dituen merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

### **4. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailea.**

4.1. Epaimahai kalifikatzaileak kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: David Oroz Alonso, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak.

Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

Idazkaria: Miren Ortiz Olabe, Sakanako Mankomunitateko idazkaria.

Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

1. Bokala: Naiara Goñi Díaz Agentziako turismo teknikaria.

Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

2. Bokala: Alfonso Nuin Bidelagun Turismo Elkarteko lehendakaria.

Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

3. Bokala: Javier Olló Martínez, Altsasuko alkatea.

Ordezkoa: Hark izendatzen duena.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

4.2. Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da.

4.3. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

4.4. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egiten ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira eta haietan soilik emanen diote laguntza epaimahaiari.

## 5. oinarria. Oposizio-lehiaketa nola egin.

Izangaiek aurkeztu eta justifikatutako merezimenduak atxikitako baremoaren arabera baloratuko ditu. Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu lehiatzaileen merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak. Deialdia argitaratzen den egunean dituzten merezimenduak soilik hartuko dira kontuan, espedientean agiri bidez egiaztatzen badira. Lehiaketaldiak gehienez ere 20 puntuko balorazioa izango du, modu honetan banaturik:

**1.- BAREMOA-PRESTAKUNTZA:** Bete beharreko lanpostuarekin/profilarekin zerikusia duten ikastaroak (gehienez ere 5 puntu) **Aztergaiak: Sakanako/Nafarroako /Euskal herriko historia, geografia, botanika, etnografia eta mitologia. Turismoarekin, aisialdiarekin eta taldeen gidaritzarekin zerikusia duten taldeak.**

50 ordu bitarteko ikastaroak	0,10 puntu/ikastaroa.
100 ordu bitarteko ikastaroak	0,30 puntu/ikastaroa.
300 ordu bitarteko ikastaroak	0,60 puntu/ikastaroa.
301 ordutik gorako ikastaroak	1,20 puntu/ikastaroa.

**2.- BAREMOA-ESPERIENTZIA:** Bete beharreko lanpostuarekin/profilarekin zerikusia duen lan-esperientzia, kontuan harturik zein mailarentzat eta zer lanbide talderentzat aurkezten den (gehienez ere 10 puntu).

a. Esperientzia:		
Administrazio publikotan turismo gaietan eta turismo-aisialdiari loturiko jendaurreko artatzean egindako lana.	0,75 puntu/ 3 hilabete	
Zentro pribatuetan turismo eta jendaurreko artatzean egindako lana.	0,50 puntu/ 3 hilabete	
b. Beste esperientzia batzuk: Bekak, boluntariorzak, praktika, gizarte-laguntza...	Egiaztatutako lan egindako 3 hilabete bakoitzeko: 0,25 puntu.	

### 3. BAREMOA-HIZKUNTZAK: Hizkuntzak jakitea (gehienez ere 5 puntu)

Ziurtagiriak	C1	B2	B1	
Ingelesa	2	1.5	-	
Frantsesa	2	1.5	0.75	

Beste batzuk (alemana, katalana, italiara)	1	0.75	0.5	
--	---	------	-----	--

## 6. oinarria.- Oposizioaldia.

### 6.1 Proba teorikoa: gehienez 20 puntu

Proba teorikoa (gehienez 20 puntu) Sakanaren ezagutzari eta turismo jardueri loturiko proba teorikoa, ekainaren 18ean 10:30etatik 12:30etara Sakanako Mankomunitateko egoitzan izango da (Uriz Kalea 32, Lakuntza) gaia ondorengo izanik:

- Sakanako geografia eta historia.
- Turismoa Sakanan.
  - o Ekimen eta zerbitzu turistikoak.
  - o Turismo-baliabideak.
- Bisita gidatuak, haien kudeaketa.
- Informazio guneen kudeaketa.

Bigarren fasera pasatzeko gutxienez 10 puntu lortu behar dira.

### 6.2. Deialdi honen xedea den lanpostuan bete beharreko eginkizunen gaineko proba praktikoa. Gehienez 60 puntu

Fase hau kasu praktiko baten bidez garatuko da eta erabat lotuta egongo da bete beharreko lanpostuaren ezaugarriari edo deskripzioari, bai eta pertsona lanposturako egokia den ikusteko ere, lanarekiko erakusten duen gaitasunaren arabera izango dena. (gehienez 60 puntu).

Proba praktikoa ekainaren 21ean egingo da, 8:30etik aurrera, Utzaganen (Utzuar industrialdea, Arbizu), eta izangai bakoitzak 20 minutu edukiko ditu.

**6.3.** Ariketak egiteko dei bakarra izanen da. Haietara, izangai guztiek nortasun agiri nazionala aldean dutela azaldu beharko dute. Bertaraten ez diren izangaiak baztertuta geratuko dira.

Probak ez dira baztertzailak. Hala ere, oposizioaren azken kalifikazioa izangaiek lortu dituzten puntuazioen batura izango da, eta baztertuta geldituko dira azken kalifikazio horretan gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten izangaiak.

## 7. oinarria.- Gainditu dutenen zerrenda eta epaimahaiaren proposamena.

7.1. Ariketa guztiak egin eta kalifikatu ondotik, epaimahaiak probak gainditu dituztenen zerrenda egingo du, puntuazio handienetik txikienerako ordenean antolatua, eta izendapen proposamena egingo dio Sakanako Mankomunitateari puntuaziorik altuena duten izangaien alde. Proposamena Mankomunitateko iragarki oholean argitaratuko da.

7.2. Aipatu epearen barnean, eta aski arrazoituriko ezinbesteko kasuak izan ezik, aipatu agiriak aurkezten ez badira ezin izango da izendatu eta, beraz, egintza guztiak deuseztaturik geldituko dira, betiere eskabidea faltsutzeagatik legokiokeen erantzun beharra galarazi gabe.

7.3. Aurreko atalean aurreikusitako kasuan, Mankomunitateak 7. oinarrian aipatzen duen zerrendan ondo-ondotik heldu diren izangaiekin beteko ditu lanpostuak.

## **8. oinarria.- Oinarrien onarpena.**

Oinarri hauen xede den oposizio-lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar oinarri horietan aurreikusitako klausula eta baldintza guztiak onartzea, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

## **1. ERANSKINA . Eskabide eredua**

.....jaunak/andreak

adinez nagusia, Kalea:.....Zenbakia:.....Posta kodea:.....Telefonoa:.....

(.....). Kalea:.....Zenbakia:.....Posta kodea:.....Telefonoa:.....

Honako hau azaltzen dut:

Onartua izatea eskatzen dudala Sakanako Mankomunitaterako turismo teknikariak izateko bi lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian. Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan, eta, era berean, ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

Badudala deialdiko 2. oinarrian adierazten den titulazioa.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Horrenbestez:

Eskatzen dut onartua izatea Sakanako Mankomunitatean turismo teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian. Eskatzen dut euskara proba egitea 3. jakite maila egiaztatzeko ( X jarri egokia den tokian)

Bai

Ez

Baimena ematen diot Sakanako Mankomunitateari Nafarroako Enplegu Zerbitzuan dauden datu pertsonaletan sartzeko.

(Eguna eta sinadura)